

OT-001-2016

Gaia: Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren hasierako onespena

Asunto: Aprobación Inicial de la Revisión del PTP del Área Funcional de Bilbao Metropolitano

Iradokizun Zenbakia: **36**

Nork aurkeztu du:

**Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko
Zuzendaritza Nagusia**

**Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzua /
Biodibertsitatea eta Pasaia Zaintzeko Atala**

Aurkezpen data: **2022/02/02**

Sugerencia N°: **36**

Presentada por:

**Dirección General de Medio Ambiente de la
Diputación Foral de Bizkaia**

**Servicio de Patrimonio Natural / Sección de
Biodiversidad y Paisaje**

Fecha de presentación: **02/02/2022**

IRADOKIZUNAREN LABURPENA

1. Jakinarazi da Bilbo Metropolitarrako Lurralde Plan Partzialak ez duela bere "lurralde- antolamenduaren ereduaren helburu estrategikoa" betetzen (*B: antolamendu- arauak* dokumentuaren 11. artikulua), ez baitu bermatzen azpiegitura berdearen funtsezko elementuen jarraitutasun ekologikoa, hala nola Natura 2000 Sareko bi espazioena, hots, Astondoko dunen KBEarena eta Barbadungo itsasadarraren KBEarena.

2. Mehatxatutako espezieen babesa dela-eta, Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuak uste du 22. artikuluan (Babestutako landareak eta animaliak dauden eremuak) zehaztu behar dela berariazko kudeaketa-plana duten animalia eta landare espezieei ez ezik mehatxatutako landare espezieei ere aplikatuko zaiela, mehatxatutako espezien gaineko eskumena daukan foru organoaren arabera zaurgarritzat edo galzorikotzat jotzen diren espezieen aleak edo populazioak dauden tokietan.

3. Gainera, berariazko kudeaketa-plana duten mehatxatutako animaliak bizi diren eremuak direla-eta, antolamendu-arauen agirian zehaztu behar da zein diren interes bereziko eremuak bisoi europarra kontserbatzeko (Butroe ibaiaren arroko ibai eta erreka guztiak; Kagua ibaia eta beraren adarrak Alonsotegiko

RESUMEN DE LA SUGERENCIA

1. Se informa de que el Plan Territorial Parcial de Bilbao Metropolitano no cumple con su propio "objetivo estratégico del modelo de ordenación territorial" (art. 11 del documento *B: Normas de Ordenación*), pues no garantiza la continuidad ecológica de elementos fundamentales de la infraestructura verde como son los dos espacios de la Red Natura 2000, ZEC dunas de Astondo y ZEC ría de Barbadun.

2. Respecto a la protección de especies amenazadas, el Servicio de Patrimonio Natural cree que, en el artículo 22. Zonas con flora y fauna protegidas, debe especificarse que, además de aquellas especies de fauna y flora que cuenten con planes de gestión específicos, se aplicará también respecto a flora amenazada, a aquellos lugares definidos por el órgano foral competente en materia de especies amenazadas, con presencia de ejemplares o poblaciones de especies que se encuentren incluidas en las categorías de Vulnerable o En Peligro de Extinción.

3. Además, respecto a las zonas de fauna amenazada que cuentan con Planes de gestión debe especificarse, en el documento de normas de ordenación, cuáles son las áreas de interés especial para la conservación del visón europeo (la totalidad de los ríos y arroyos de la cuenca del río Butroe; la totalidad de los afluentes y el





udalerrian; Zeberio ibaia eta beraren adar guztiak Nerbioi ibaiaren arroan) eta arrain hiruarantza kontserbatzeko (Gobela, Udondo, Asua eta Galindo ibaiak, kudeaketa-planean ezarritako mugen arabera).

Ez da beharrezkoa planoetan ezartzea, eskala dela-eta ezinbestekoa baita eremuen azalerak behar bezala adieraztea.

4. Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partzialak eragin nabaria (zuzenekoa zein zeharkakoa) dauka bisoi europarra eta arrain hiruarantza interes bereziko eremuetan susperitzeko. Beraz, LPPa behin betiko onartu aurretik, BFAko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuari eskatu beharko zaizkio bisoi europarra Bizkaian kudeatzeko planaren 10. artikuluan eta arrain hiruarantza kudeatzeko planaren 7. artikuluan ezarritako nahitaezko txostenak (LAParen dokumentuari dagokionez, behin betiko onartzeko), eta hark egin beharko ditu.

5. LPPko antolamendu-arauen dokumentuan berariaz agertu behar da honako naturagune babestu hauek daudela, eta aipatu eremu horietan aplikatzen den arautegiak lehentasuna daukala hirigintzako arauen eta lurraldea antolatze arauen aldean:

- Natura 2000 Sareko ES213003 Barbadun-itsasadarra eta ES213004 Astondoko dunak naturagune babestuak eta beren inguruko 200 metroko babes-eremuak. Inguruko babes-eremuek ezartzen duten kautelazko babes-araubideak hiri-lurzorua finkatua baino ez du baztertzen.
- Uribe Kosta-Butroe eremuak kautelazko babes-araubidea dauka beraren natura-balioak direla-eta.

Gorbeia Parke Naturala eta KBE (ES2110009) eta Mundakako itsasadarra-Ogoño lurmuturreko itsas eremua HBBE (ES0000490) naturagune babestuak ez dira nahitaez berariaz agertu behar antolamendu-arauetan, eta aski izango da LPPren memorian aipatzea, zeren eta horren eremuan hondarrekoak baitira edo LPPren arauak ez baitiete

propio río Kadagua en el municipio de Alonsotegi; y el río Zeberio y la totalidad de sus afluentes en la cuenca del río Nervión) y el pez espinoso (los ríos Gobela, Udondo, Asua y Galindo según la delimitación realizada por el Plan de gestión), incluidas en dicha categoría.

No se estima necesario su traslado a los planos debido a que la escala de dichos planos no permite un reflejo adecuado de las superficies afectadas.

4. Se recuerda que el Plan Territorial Parcial de Bilbao Metropolitano es un plan con repercusión apreciable, directa o indirecta, sobre la recuperación de las especies visón europeo y pez espinoso en las áreas de interés especial. Por tanto, con carácter previo a la aprobación definitiva del PTP deberán solicitarse (respecto al documento para aprobación definitiva) y ser emitidos por el Servicio de Patrimonio Natural de la DFB los informes preceptivos establecidos en el artículo 10 del plan de gestión del visón europeo en Bizkaia y en el artículo 7 del plan de gestión del pez espinoso.

5. El documento de normas de ordenación del PTP deberá recoger expresamente la existencia de los siguientes espacios naturales protegidos, así como la normativa de aplicación en dichos espacios que prevalece sobre el resto de normativa urbanística y de ordenación del territorio:

- Espacios Naturales Protegidos ES213003 Ría de Barbadun y ES213004 dunas de Astondo, con sus respectivas zonas periféricas de protección de 200 m, de la Red Natura 2000. Las citadas zonas periféricas de protección establecen un régimen cautelar de protección que únicamente excluye al suelo urbano consolidado.
- Zona de Uribe Kosta-Butroe sometida a régimen de protección cautelar por sus valores naturales.

Los espacios naturales protegidos Parque Natural y ZEC del Gorbea (ES2110009) y Espacio Marino de la Ría de Mundaka-Cabo de Ogoño ZEPA (ES0000490) no es imprescindible que sean incorporados de forma expresa a las normas de ordenación, siendo suficiente su reflejo en la memoria del PTP, puesto que ocupan una posición residual en el ámbito del PTP o bien la regulación del PTP no les afecta de





eragiten gainerako naturagune babestuei beste.

6. Ez dago deklaraturako naturagune babestuak eta beren inguruko babes-eremuak zein Uribe Kosta-Butroe eremua (natura ondareari buruzko legerian oinarritutako kautelazko babesa daukan eremua) ondo erakusten dituen planorik.

BFAko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuaren iritziz erabat argi dago plano hori nahita ezkoa dela eta xehetasun nahikoa ematen duen eskalakoa izan behar dela (ad.: 1:10.000, gatazka-eremuetako planoak bezala). Gainera, 3.1 planoan ez dira ondo adierazten natura ondareko eremu babestuak.

Planoan agertu behar diren hiru naturagune babestuak: Barbadunen itsasadarreko KBE, Astondoko duntetako KBE, eta Uribe Kosta-Butroe kautelazko babeseko eremua. Gainera, plano honetan honako hauek ere agertu behar dira: hiri-hazkundeko perimetroak (alduak, behar izanez gero), aurrean aipaturako naturagune babestuei ez beren inguruko babes-eremuei (Natura 2000 Sarea) zuzenean eragin ezin dietenak.

- 7.3.1 planoan Zierbena Kostako natura-intereseko eremua agertu behar da, eta beraren azalera bertako lore eta paisaien balioak hartzeko modukoa izan behar da. Horrenbestez, eremu honetan sartu behar da Pobeñako iparraldeko Itsas lur aldea, bai eta Muskizko auzoko hegoaldeko Janeo Pico Ramos mendia ere. Halaber, planoan agertu behar da Luzero-Atxiga eremuaren eta Montaña eremuaren arteko konexioa Kardeo ibarrean zehar.

- 8.3.2 planoan, Somorrostro edo La Arenako hondartzako mendebaldeko zatia hiri-hondartzaren izatea kendu behar zaio, zeren eta, hirigunetik kanpora egonik, ez baita halakoa, eta etorkizunean ezin antolatu izango baita horrela, Natura 2000 Sareko naturagune babestu baten barruan dago eta.

9. BFAko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuak uste du Zierbena kostako natura-interes bereziko eremuaren eta Natura 2000 Sareko Barbadunen itsasadarra KBEren arteko konexio ekologikoa ez dela egokia.

forma tan importante como al resto de espacios naturales protegidos.

6. Se destaca la ausencia de un plano adecuado que incluya tanto los espacios naturales protegidos declarados, y sus zonas periféricas de protección, así como el espacio de Uribe Kosta-Butroe, espacio con protección cautelar basada en la legislación de Patrimonio Natural.

El Servicio de Patrimonio Natural de la DFB ve muy clara la necesidad de incluir ese nuevo plano de forma específica y diferenciada, a una escala de detalle suficiente (p.ej. 1:10.000, al igual que los planos de las áreas de conflicto -ACE-). También se dice que el plano 3.1 no incluye de forma adecuada los espacios protegidos del patrimonio natural.

Los tres espacios naturales protegidos a incluir en el plano son: ZEC ría de Barbadun, ZEC duna de Astondo, y Espacio con protección cautelar de Uribe Kosta-Butroe. Además, en este plano se deben incluir también los perímetros de crecimiento urbano, modificados en su caso, que no podrán afectar de forma directa a los citados Espacios Naturales Protegidos, ni a sus zonas periféricas de protección (en los casos de Red Natura 2000).

7. El plano 3.1 debe reflejar el área de interés natural de Zierbena Kosta con la extensión adecuada para incorporar los valores florísticos y paisajísticos que la caracterizan. Esto supone la incorporación a esta área de la zona de Itsas lur al norte de Pobeña, así como el monte Janeo Pico Ramos al sur de este mismo Barrio de Muskiz. Así mismo debe grafarse la conexión dentro de esta área de la zona de Luzero-Atxiga con la zona de Montaña a través del valle de Kardeo.

8. En el plano 3.2 la parte oeste de la playa de Somorrostro o La Arena debe ser extraída de su condición de playa urbana pues, ni lo es al estar fuera de zona urbana, ni a futuro se la puede prever ni planificar como tal, puesto que se halla incluida dentro de un espacio natural protegido de la Red Natura 2000.

9. El Servicio de Patrimonio Natural de la DFB estima que la conexión ecológica del área de especial interés natural de Zierbena kosta y del espacio de la Red Natura 2000 ZEC ría Barbadun no es la adecuada.





Izan ere, Muskizko mendebaldeko igarobide ekologikoa, Barbadun deritzona, ez da nahiko, ez egokia, Zierbena kosta natura-intereseko eremuaren konexio ekologikorako, ez eta Barbadun KBEn konexio ekologikorako ere.

LPPren planoan ageri den ustezko igarobide ekologikoa Montañó-Las Carreras eremukoarekin osatu behar da gutxieneko funtzionaltasun ekologikoa edukiko badu.

Halaber, konexioak direla-eta, Montañó A-8 eremua gatazka-eremu modura agertu behar da planoan, izan litezkeen konponbideak ezartzeko: ekoduktua eta eraikiko diren azpiegituren proiektuak egokitzea (12. ardatza, Las Carreras-Muskiz-Sopuerta errepidea, Murrieta-Las Carreras aldean).

Eremu honetako konektibitate ekologikoaren galeran hiri-hazkuntzako aldearen definizioak berak ere edukiko du eragina. Alde horren definizioan KBEn inguruko babes-eremua sartzen da; beraz, deskonexio ekologikoa areagotu baino ez da egingo.

Horrenbestez, proposatzen da igarobide ekologikoa sustatzea hegoaldean horretarako erabil daitekeen eremu bakarrean (Montañó, Mantres, Murrieta) eta handik meatzaldean zehar Meatzaldeko biotopoarekin eta Enkarterriko gainerako naturagune guztiekin lotzea.

Igarobide ekologiko hori funtzionala izan dadin, berriz ere proposatzen da "Montañoko ekoduktua" ezinbestekoa izatea, zeren eta Teknologia Parkeko azpiegitura berriak areagotu egin baitu Zierbena Kostako naturagunearen eta Barbadun KBEn bakartasun ekologikoa.

Beraz, Montañoko ekoduktua funtsezkoa da ekologiararen aldetik, eta LPPn arreta eman behar zaio.

Antolamendu-arauen dokumentuan 39. artikulua sartu behar da (Gatazka-eremuak), hain zuzen ere A-8ko Montañoko gatazka-eremua,

Así, el corredor ecológico diseñado en la zona oeste en Muskiz, denominado Barbadun, no se puede considerar suficiente, ni adecuado, para la conexión ecológica del área de interés natural de Zierbena kosta, ni específicamente para la de la ZEC de Barbadun.

El supuesto corredor ecológico que grafía el PTP debe ser complementado y grafiado junto con el necesario de Montañó-Las Carreras para tener un mínimo de funcionalidad ecológica.

También debe grafarse esta zona de Montañó A-8 como un área de conflicto para la conectividad, con la finalidad de proceder a incluir las posibles soluciones, como el ecoducto y la adaptación de los proyectos de las futuras infraestructuras a construir (carretera eje 12 Las Carreras-Muskiz-Sopuerta en la zona de Murrieta-Las Carreras).

Otra cuestión que incidirá en la pérdida de conectividad ecológica de esta área es la propia definición del área de crecimiento urbano. La definición de esta área incluye la zona periférica de protección de la ZEC, con lo que la desconexión ecológica no puede si no incrementarse.

Se propone y se aporta la definición, por lo tanto, de la potenciación de un corredor ecológico por el único espacio practicable hacia el sur, la zona de Montañó, Mantres, Murrieta y desde esta zona conectar a través de la zona minera con el biotopo de Meatzaldea y resto de las zonas naturales de Encartaciones.

Para la funcionalidad de este corredor ecológico se propone nuevamente la necesaria inclusión del "ecoducto de Montañó", ahora de forma imprescindible, pues ya se ha creado la nueva infraestructura del Teknologia Parkea que aumenta el aislamiento ecológico de la zona natural de Zierbena Kosta y de la ZEC Barbadun.

El ecoducto de Montañó, pues, se trata de una cuestión central y de gran relevancia ecológica a la que el PTP debe atender.

En el documento de normas de ordenación se debe incorporar al art. 39 Áreas de Conflicto el A.C citada en la A-8 en Montañó, estableciéndose la necesidad de construcción de un





eta ezarri behar da txostenaren eranskinean azaltzen den ekoduktua eraiki behar dela.

ecoducto de las características señaladas en el anexo que se adjunta al informe.

10. 39. artikulua (Gatazka-eremuak) dela-eta, helburuak ez dira nahikoak, gatazka-eremuetarako "animaliak pasatzeko tokiak" baino ez dira proposatzen eta. Natura 2000 Sareko bi naturaguneren jarraitasun ekologikoa bermatuko bada, ezinbestekoa da ongi dimentsionatutako ekoduktuak egitea, funtzionaltasun urriko konponbide puntualak aldi batera utzita.

10. Respecto al artículo 39 Áreas de Conflicto, se considera que sus objetivos son insuficientes al plantear muy poco más que "pasos de fauna" en las zonas identificadas como conflicto. Incorporar ecoductos bien dimensionados que permitan una continuidad ecológica real y no soluciones puntuales con escasa funcionalidad se considera una cuestión indispensable para garantizar la continuidad ecológica de dos espacios de la Red Natura 2000.

11. 39. artikulua testuan aipatzen da garraio-azpiegituren arloko eskumena daukan administrazioa eta udalerririk koordinatuta aritzea funtzionaltasun ekologikoa bermatzeko neurriak sustatzeko, baina ez da ezer esaten naturaguneei eta espezie mehatxatuen arloko eskumena daukan organoarekin koordinatzeaz (Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzua), nahiz eta horrek aztertu behar funtzionaltasun ekologikoa. Hori ere 39. artikuluan ezarri behar da.

11. En la redacción del artículo 39 se incluye la coordinación de la administración competente en materia de infraestructuras de transporte con los municipios para acometer las medidas para garantizar la funcionalidad ecológica, pero no incluye la coordinación con el órgano competente en materia de espacios naturales y especies amenazadas (el Servicio Foral de Patrimonio Natural), que es quien tiene que valorar dicha funcionalidad ecológica. Dicha cuestión también debe ser incorporada al artículo 39.

12. 9. planoan zehazten diren hiri-hazkuntzako perimetroak aldatu behar dira honako hiru eremu hauetan: Astondoko dunetako KBE, Barbadunen itsasadarreko KBE, eta Uribe Kosta-Butroe kautelazko babes-eremua. Hona aldaketak:

12. Los perímetros de crecimiento urbano definidos en el plano 9 deben ser modificados en los tres ámbitos de la ZEC dunas Astondo, ZEC ría de Barbadun y espacio con protección cautelar de Uribe Kosta-Butroe, de la siguiente forma:

- Astondoko dunetako KBEn, perimetroak ez dio eragin behar KBEri, ez beraren inguruko babes-eremuari, eta ezin du inguratu naturagunea hegoaldeetik, ez Natura 2000 Sareko alde honen inguruko landare mehatxatuak ukitu.
- Barbadunen itsasadarreko KBEn, perimetroak ezin du hartu Pobeña auzoa, ez KBEren mendebaldea (San Julian hirigunearen iparraldea), ez horren inguruko babes-eremua.
- Uribe Kosta-Butroe eremuan, hiri-hazkuntzako perimetrotik kanpo utzi behar dira kautelazko babes-araubidean dauden lurrak.

- En la ZEC dunas de Astondo no debe afectar a esta ZEC ni su zona periférica de protección, ni rodear a este espacio natural por su zona sur, ni afectar a las zonas con flora amenazada aledañas a este lugar de la Red Natura 2000.
- En la ZEC ría de Barbadun no debe abarcar el barrio de Pobeña ni la zona oeste de la ZEC (norte del núcleo de San Julián) ni a su zona periférica de protección.
- En el espacio Uribe Kosta-Butroe, debe excluir los terrenos sometidos al régimen de protección cautelar.

13. Beste alde batetik, 9. planoak aldatu behar da, kanpoan utzi behar baita paisaia-intereseko eremu bat, ez ingurumenaren aldetik, ez kulturaren aldetik, ez udalerriko zein udalaz

13. Por otra parte, el plano 9 debe ser modificado también para excluir una zona de interés paisajístico que no puede ser urbana ni por sus valores ambientales y culturales, ni por





gaindikoa arautegiaren arabera (Ortuellako eta Abanto-Zierbenako udal-plangintzak) hirikoa ezin izan daitekeena.

9. planoan La Corta de Concha II edo Bodovalle eremua ageri da, bai eta La Bargako meatzaldea ere, eta biak ala biak *Meatzaldeko Ingurumena Babestu eta Berreskuratzeko Plan Bere-zian* arautzen dira. Eremu horri kultura-ondarea babesteko berariazko beste arautegi batzuk ere aplikatzen zaizkio, eta interes geologikoko gunea ere bada. Horregatik guztiagatik, artatu eta babestu behar da, eta babes bereziaren kategoria eman behar zaio.

Doitutako hiri-hazkuntzako perimetro berriak naturaguneen plano berrian eta 3.1, 3.2 eta 3.3 planoetan agertu behar dira, eta behar diren gainerako plano guztietan ere bai.

14. Bide-azpiegiturak eta gatazka-eremuak:

- 12. ardatza; Las Carreras-Muskiz-Sopuerta tarte berria: azpiegitura berri hau eta A-8 Las Carreras eremuko iparraldean gatazka-eremu modura markatu behar dira, eragina baitu Zierbenako natura-intereseko eremuan eta Barbadunen itsasadarreko KBEn.
- 11. ardatza; portuko mendebaldeko sarbidea: sarbide berri hau gatazka-eremu modura agertu behar da, aurrekoak bezala eragina baitu azpiegitura berde horietan.
- Erletxeta eta Larrabetzu arteko gatazka-eremua A-8k Erletxeta eta Galdakao artean hartzen duen eremura zabaldu behar da.

15. 28. planoan, AEIP 01 Zierbena aldatu behar da, eta Barbadun KBE, Janeo Ramos mendia eta Itsas lur aldea sartu behar dira, balio handikoak baitira paisaiaren eta landaretzaren aldetik.

16. Antolamendu-arauen 92. artikuluan eta 28. planoan eremu berri bat sartu behar da, hain zuzen ere, funtsean, BFAk onetsitako Meatzaldeko Ingurumena Babestu eta Berreskuratzeko Plan Bere-zian arautzen den aldea (PIBE Meatzaldeko intereseko paisaiak).

normativa urbanística municipal y supra-municipal según el planeamiento de los municipios de Ortuella y Abanto-Zierbena.

El plano 9 incluye la zona de La Corta de Concha II o Bodovalle, así como la zona minera de La Barga, ambas reguladas e incluidas también en el *Plan Especial de protección y recuperación ambiental de la Zona Minera*. Sobre dicho espacio concurren también otras normativas específicas de protección cultural, así como valores referidos a su importancia como lugar de interés geológico, que inciden en la necesidad de conservación y protección, dotando a este lugar de la categoría Especial Protección.

Los nuevos perímetros de crecimiento urbano ajustados se deben reflejar tanto en el nuevo plano de espacios naturales, como en el 3.1, en el 3.2 y en el 3.3, así como en el resto de los planos en los que sea preciso.

14. En cuanto a las infraestructuras viarias y las áreas de conflicto:

- Eje 12 Nuevo tramo Las Carreras-Muskiz-Sopuerta: se debe marcar esta nueva infraestructura y la propia A-8 en esa zona al norte de Las Carreras como un área de conflicto claro con la infraestructura verde (Área de interés natural de Zierbena y ZEC ría de Barbadun).
- Eje 11 Acceso oeste al puerto: se debe incorporar este nuevo posible trazado como un área de conflicto con la infraestructura verde, al igual que el anterior.
- El área de conflicto marcada entre Erletxeta y Larrabetzu debe extenderse también a la zona ocupada por la A-8 entre Erletxeta y Galdakao.

15. En el plano 28 la AEIP 01 Zierbena debe ser modificada para incorporar la ZEC Barbadun, el monte Janeo Ramos y el área de Itsas lur, lugares todos ellos con unos valores paisajísticos y florísticos de valor extraordinario.

16. Se debe incluir, en el art. 92 de las normas de ordenación y en el plano 28, una nueva área que se corresponde básicamente con el área regulada mediante el plan Especial de protección y recuperación ambiental de la Zona





Minera aprobado por la DFB (AEIP Paisajes Mineros de interés).

17. 30. planoan (paisaia-kalitateko helburuak), Abanto-Zierbenako Bodovalle edo Concha II meatzeko kanpoko korta kanpoan utzi behar da paisaia lehengoratu beharretik (betelanik ez, ez eta betelanez edo soberakinez lehengoratu ere), zeren eta babestutako kultura-intereseko ondasuna baita; izan ere, gaur egun kultura eta ingurumen ondarea artatu eta zabaltzeko helburua ezarrita dauka, LPPren beste atal batzuetan adierazten den bezala (Ekoetxea, begiratokia eta Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa).

17. El plano 30 de objetivos de calidad paisajística debe excluir la corta exterior de la mina de Bodovalle o Concha II en Abanto-Zierbena como un lugar a restaurar paisajísticamente (exclusión de relleno o de restauración mediante rellenos o depósitos de sobrantes) puesto que se trata de un bien de interés cultural protegido y que en la actualidad cuenta con un objetivo de conservación y divulgación de patrimonio cultural y ambiental de relevancia tal y como se resalta en otros apartados del PTP (presencia de una Ekoetxea, de un mirador y del Museo de la Minería del País Vasco).

18. Antolamendu-arauen B.XII eranskinean (*Eraginkortasun loteslearen taula*) lotesle modura sartu behar da Meatzaldeko Ingurumena Babestu eta Berreskuratzeko Plan Berezia Trapagaran, Ortuella eta Abanto-Zierbenako udalerrietan.

18. El anexo a las normas de ordenación B.XII. *Cuadro de eficacia vinculante* debe incluir como vinculante el Plan Especial de Protección y recuperación ambiental de la Zona Minera en los municipios de Trapagaran, Ortuella y Abanto-Zierbena.

19. FR202 eranskina (Zortasunak eta Kostaldeei buruzko Legea) aldatu behar da, Zierbena-Muskiz aldearen muga berriak islatu behar baitira Barbadun KBEn eremu periferikoaren barruan.

19. El anexo FR202. Servidumbres y Ley de Costas debe modificarse para reflejar el nuevo deslinde en la zona de Zierbena-Muskiz dentro de la zona periférica de la ZEC de Barbadun.

20. Udalerriek jasango dituzten ondorioen dokumentua aldatu behar da aurrean aipatu diren aldaketen inguruko ezinbesteko ingurua barrak ezartzeko.

20. El documento de afecciones a los municipios deberá ser modificado para recoger las cuestiones básicas imprescindibles entre las modificaciones anteriores.

TXOSTENARI EMANDAKO ERANTZUNA

1. LPPk betetzen du Natura 2000 Sareko Astondoko duntako KBEn eta Barbadunen itsasadarreko KBEn jarraitasun ekologikoa, biak ere metropolialdeko azpiegitura berde zabalagoaren barruan baitaude.

Barbadunen itsasadarreko KBEri dagokionez, LPPn Barbadunen igarobide ekologiakoa (C.E.07) ezartzen da; horrek Ganekogorta – Meatzegi – Barbadun (C.E.06) igarobide ekologikoa lotzen du Pobeñako paduretako eta La Arenako hondartzako natura-intereseko eremuekin eta Zierbenako eremuarekin, eta Barbadunen itsasadarreko KBE Kantabriara hedatzen du kostaldetik. Gainera, lotura-igarobi-deak ezartzen dira Barbadunen itsasadarra

CONTESTACIÓN AL INFORME

1. El PTP sí cumple la continuidad ecológica de los espacios de la Red Natura 2000, ZEC dunas de Astondo y ZEC ría de Barbadun, pues ambos se encuentran incluidos en zonas más extensas de la infraestructura verde metropolitana.

En el caso de la ZEC Ría de Barbadun, el PTP define el corredor ecológico Barbadun (C.E.07) que enlaza el corredor ecológico Ganekogorta – Meatzegi – Barbadun (C.E.06) con el entorno de las áreas de interés natural de las Marismas de Pobeña y la playa de La Arena, y el área de Zierbena incorporando la ZEC de la ría del Barbadun y extendiéndose a Cantabria por el litoral. Además, se establecen también corredores de enlace para unir la Ría del Barbadun con el núcleo urbano de Muskiz





lotzeko Muskizko herrigunearekin eta Serantes – La Arenako metropoli-parkearekin.

Astondoko dunetako KBE Uribe Kosta-Butroeko eremuaren Baliabide Naturalak Antolatzeko Planaren eremuaren barruan dago. Beraz, tresna horrek dauka lehentasuna, eta bertan ezarri behar dira funtsezko artapen-elementuei buruzko neurriak, gidalerroak eta arauak.

2. Antolamendu-arauen 22. artikuluan ezartzen da landare-espezie mehatxatuak artatzeko eta suspertzeko eremuak sartzen direla. Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legeak ezartzen duen bezala, mehatxatutako espezie basatiak galzorian daudenak eta zaurgarriak dira.

22. artikuluan (mehatxatutako landareak eta animaliak bizi diren eremuak) “Aplikatu beharreko arauak” atala eguneratu behar da.

3. 22. artikuluan (mehatxatutako landareak eta animaliak bizi diren eremuak) zehaztu behar da aintzat hartu behar dela indarreko kudeaketa eta kontserbazio planak onesten dituzten dekretuetan ezartzen dena, espezie bakoitzaren kontserbaziorako interes bereziko eremuez ezartzen dena barne.

4. LPPa berari buruzko aginduzko txostena egin behar duten administrazio guztiei bidaliko zaie.

5. 33. artikuluan (Intereseko naturaguneak) “Aplikatu beharreko arauak” atala sartuko da, eta bertan babestutako naturaguneak arautzen dituzten dekretuak eta aginduak aipatuko dira.

6. LPPak dokumentazio grafikoan sartuko du intereseko naturaguneen informazio-iturria zein den. Plano horren eskala egokitzat jotzen da lurralde-antolamendurako.

Hiri Hazkunderako Perimetroaren (HHP) mugaketak nolabaiteko malgutasuna eskaini behar du, udalek beren hirigintza-eredua definitu ahal izan dezaten LPPren esparruaren barruan, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritzaren txostenaren arabera.

y con el Parque Metropolitano del Serantes – La Arena.

La ZEC Dunas de Astondo queda incluida dentro del ámbito del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales (PORN) del área de Uribe Kosta-Butroe, por lo que es este instrumento el que prevalece y debe establecer las medidas, directrices y normas relacionadas con los elementos de conservación claves.

2. El artículo 22 de las Normas de Ordenación ya dice que se incluyen las áreas de conservación y recuperación de especies de flora amenazadas. Y, tal y como establece la Ley 9/2021, de 25 de noviembre, de conservación del patrimonio natural de Euskadi, las especies silvestres amenazadas comprenden las que están en peligro de extinción y las vulnerables.

El artículo 22 (zonas con flora y fauna protegida) se actualizará el apartado “Normativa de aplicación”.

3. En el artículo 22 (zonas con flora y fauna protegida), se especificará que deberá respetarse lo establecido los decretos que aprueban Planes de Gestión y Conservación específicos que sean vigentes, incluyendo, por supuesto, las áreas de interés especial para la conservación de cada especie.

4. El PTP será remitido a todas las administraciones que tengan que realizar informe preceptivo del mismo.

5. Se incluirá en el artículo 33 (Espacios naturales de interés) un apartado de “Normativa de aplicación”, en el que se mencionará los Decretos y Órdenes que regulan los espacios protegidos.

6. El PTP incluirá en la documentación gráfica la fuente de información desde la cual se han incorporado los espacios naturales de interés. La escala de dicho plano se considera adecuada a la ordenación territorial.

La delimitación del Perímetro de Crecimiento Urbano (PCU) debe ofrecer cierta flexibilidad para que los ayuntamientos puedan definir su propio modelo urbanístico dentro del marco del PTP, de acuerdo con el informe de la Dirección de Planificación Territorial, Urbanismo y Regeneración Urbana del Gobierno Vasco.





Bestalde, LPPren antolamendu-arauen 56. artikulua araber, hirigintzako eraldaketa debekatuta dagoen lursailak HHPTik kanpo uzten dira, LAGen ingurune fisikoaren Gidalerroan xedatutakoaren araber. Hau da, Barbadungo Itsasadarra KBEa, Astondoko Dunak KBEa, Uribe Kosta-Butroeko kautelazko babesa duen Gunea edo Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE) bezalako babes-figurak dituzten lurzorua ezin dira eraldatu, eta babes-figura gailenduko da.

Por otra parte, de acuerdo con el artículo 56 de las normas de ordenación del PTP, se excluyen del PCU los terrenos en los que queda prohibida su transformación urbanística, según lo dispuesto en la Directriz de medio físico de las DOT. Es decir, que los suelos que cuentan con figuras de protección como puede ser la ZEC Ría de Barbadun, la ZEC Dunas de Astondo, el Espacio con protección cautelar de Uribe Kosta-Butroe, o las Zonas de Especial Protección para las Aves (ZEPA), no pueden ser transformados, y la figura de protección prevalecerá.

7. LPPko 03.1 planoan LAGetan biltzen diren natura-intereseko eremuak ageri dira. Zierbena eta Muskizko udalerrietan LAGetan "Zierbenako eremua" esaten zaiona ageri da: Punta Lucero, Atxiga eta Montañó.

7. El plano 03.1 del PTP incluye los espacios de interés natural recogidos en las DOT. En los municipios de Zierbena y Muskiz se ha recogido lo que las DOT denomina "Área de Zierbena" que abarca Punta Lucero, Atxiga y Montañó.

8. La Arenako hondartzaren eremua (Abanto Zierbena / Muskiz) bat etorri behar da EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatze Lurraldearen Arloko Planean ezartzen denarekin.

8. La limitación de la playa de La Arena (Abanto Zierbena / Muskiz) se ajustará a lo que recoge el Plan Territorial Sectorial de Protección y Ordenación del Litoral de la CAPV.

9. Iradokizunean aipatzen den igarobide ekologikoaren proposamena ez da inolaz ere bidegarria eremuaren errealitate fisikoa kontuan hartuta. Hain zuzen ere, azpiestazio elektrikoa, Las Carreras herrigunea eta horren inguruko pasabide estuak (Petronor, Murrieta auzoa eta urtegia), garraio-azpiegiturak (N-634, Renfe Cercanías 2. línea, Las Carreraseko saihesbidea izango dena) eta La Balastera-Putxeta-Cantera Lancha oztopoa (ez da ageri iradokizunaren oztopo guztien grafikoan) direla-eta, ezinezkoa da metropolikotzat jotzeko behar bezain garrantzitsua den igarobide ekologikoa sortzea.

9. La propuesta de corredor ecológico que plantea la sugerencia es manifiestamente inviable a la luz de la realidad física existente en el ámbito. Así, elementos como la subestación eléctrica, el núcleo urbano de Las Carreras y los estrechos pasos que se generan a su alrededor (Petronor, barrio Murrieta y depósito de aguas), así como las infraestructuras de transporte (N-634, línea 2 Renfe Cercanías, futura variante Las Carreras) y la barrera formada por La Balastera-Putxeta-Cantera Lancha (que no se encuentra recogida en el gráfico de barreras totales de la sugerencia) imposibilitan la creación de un corredor ecológico de una entidad suficiente como para considerarlo de carácter metropolitano.





Horren ordez, LPPak Montaña-Las Carreras lotura-korridorea (ekologikoa) planteatzea erabaki du, azpiestazio elektrikoaren mende-baldetik eta Las Carrerasesko herrigunetik igarotzen dena, Barbadun korridore ekologikoaren ingurunearekin lotu arte.

En su lugar, el PTP ha optado por plantear el corredor (ecológico) de enlace Montaña-Las Carreras, que discurre por el oeste de la subestación eléctrica y el núcleo urbano de Las Carreras, hasta enlazar con el entorno del corredor ecológico Barbadun.

Lotura-korridoreek korridore ekologikoei baino indar txikiagoa dute, ez ekologikoki garrantzi txikiagoa dutelako, trazadurarako dagoen espazio txikiagatik baizik. Horrela, planoetan ikusten den bezala, oro har ingurune antropizatuak edota hiri-inguruneak pasabideei lotuta daude, kasu honetan gertatzen den bezala.

Los corredores de enlace tienen menor entidad que los corredores ecológicos, debido, no a su menor importancia ecológica, sino al reducido espacio que existe para su trazado. Así, tal y como se aprecia en los planos, están vinculados generalmente a pasos por entornos antropizados y/o urbanos, tal y como ocurre en este caso.

Horregatik, eta LPPren lan-escala dela eta, egokiagotzat jotzen da lotura-korridoreak definitzea udal hirigintza-plangintzaren hiri-azpiegitura berdean, lotutako gatazka-eremuekin batera. Horregatik, trazadura modu eskematikoan jasotzen da, zabalera edo trazadura zehatzik eskatzen ez duen lerro batekin. Hirigintza-plangintzak LPPren proposamena egokitu ahal izango du, eta trazadura-alternatibak proposatu, egoki iritziz gero.

Por esta razón y por la escala de trabajo del PTP, se considera más adecuado definir los corredores de enlace en la infraestructura verde urbana del planeamiento urbanístico municipal, junto con las áreas de conflicto asociadas. Por ello, su trazado se recoge de modo esquemático con una línea, que no presupone una anchura ni un trazado concreto. El planeamiento urbanístico podrá adaptar la propuesta del PTP y proponer alternativas de trazado si se considera oportuno.

10. LPPn lurraldea aztertzen da, gatazka gerta daitekeen aldeak zehazten dira, eta konponbidea proposatzen da. LPPn igarobidea eskematikoki baino ez da zehazten lerro batez, ez zabalera ez trazadura zorrotz finkatu gabe.

10. El PTP realiza un análisis del territorio, localiza las zonas en las que puede haber conflicto y propone una posible solución. En el PTP su trazado se recoge de modo esquemático, con una línea, que no presupone una anchura ni un trazado concreto.





Garraio-azpiegiturak proiektatu eta egitean, LPPko proposamena moldatu ahal izango da, eta beste aukera batzuk proposatu ere bai. Garraio-azpiegituren eta komunikazioen arloko eta naturagune eta espezie mehatxuen arloko eskumena duten administrazioek, azpiegitura egiten den udalerriekin koordinatuta, beharrezko neurri zehatzak ezarri beharko dituzte, arazoa sakonetik aztertu ondoren, garraio eta komunikazio azpiegitura egiteko lanek azpiegitura berdean ahalik eraginik txiki-ena edukitzeko eta horren funtzionaltasun ekologikoa modu eraginkorrean bermatzeko.

A la hora de proyectar y ejecutar las infraestructuras de transporte, se podrá adaptar la propuesta del PTP y proponer alternativas si se considera oportuno. Las administraciones competentes en materia de infraestructuras de transporte y comunicación, y espacios naturales y especies amenazadas, en coordinación con los municipios en los cuales se desarrolla la infraestructura, deberán acometer las medidas concretas necesarias, tras un análisis más profundo de la problemática concreta, para mitigar así el impacto que el desarrollo de la infraestructura de transporte y comunicación pueda tener sobre la infraestructura verde y garantizar de forma efectiva la funcionalidad ecológica de esta última.

11. Naturagune eta espezie mehatxuen arloko eskumena daukan organoa ere sartu behar da.

11. Se incluirá también al órgano competente en materia de espacios naturales y especies amenazadas.

12. Lehen azaldu den bezala, Barbadungo Itsasadarra KBEa, Astondoko Dunak KBEa, Uribe Kosta-Butroeko kautelazko babesaren Gunea edo Hegaztientzako Babes Berezikotako Eremuak (HBBE) ezin dira eraldatu eta babes figura gehiago gailenduko da hiri-hazkundearen perimetroan sartuta dauden ala ez baino.

12. Como se ha explicado anteriormente, los suelos que cuentan con figuras de protección como puede ser la ZEC Ría de Barbadun, la ZEC Dunas de Astondo, el Espacio con protección cautelar de Uribe Kosta-Butroe, o las Zonas de Especial Protección para las Aves (ZEPA), no pueden ser transformados, y la figura de protección prevalecerá más allá de si se encuentran o no incluidas dentro del perímetro de crecimiento urbano.

13. HHPren mugek gehieneko esparrua ezartzen dute; ez dago zertan horretara heldu.

13. La delimitación del PCU constituye un marco límite máximo, que no tiene por qué alcanzarse.

HHPk ez du aldatzen ez lurzoruen sailkapena ez eta kalifikazioa ere, eta ez du esan nahi ez dela bete behar indarrean dauden plan berezietan ezarritakoa. Bestalde, baldintzatzaile gainjarriek ingurune fisikoaren antolamendukategoria bakoitzerako ezarritako erabilerean erregimena mugatu edo baldintzatzen dute, eta baldintzatzaile gainjarri horiek bete beharko dira HHP barruan egon arren.

El PCU no cambia ni la clasificación ni la calificación del suelo, ni implica que no haya que cumplir lo estipulado en los planes especiales vigentes. Por su parte, los condicionantes superpuestos limitan o condicionan el régimen de usos establecido para cada categoría de ordenación del medio físico, y habrá que cumplir con esos condicionantes superpuestos aun estando dentro del PCU.

14. Azpiegitura berdean jarraitutasun bat lortze aldera, gatazka-eremuak erakunde jakin baten azpiegitura-elementuak metropoli-parkeekin eta LPPk definituriko igarobide ekologikoekin gainjartzetik abiatuta definitzen dira. Azken horiek aipaturiko jarraitutasunean gutxienezko batzuk bermatu behar dituzten elementu gisa ulertu behar dira. Abiapuntu hori oinarri hartuta, honako hausnarketa hauek egin daitezke:

14. Cara a la consecución de una continuidad en la infraestructura verde, las áreas de conflicto se definen a partir de la superposición de elementos infraestructurales de una determinada entidad con los parques metropolitanos y los corredores ecológicos definidos por el PTP, entendidos éstos últimos como los elementos que deben asegurar unos mínimos en la mencionada continuidad. Sobre esta base de





- Puntu hori dokumentu honen 9. atalean tratatu da.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusiaren aurreikuspenak, Bizkaiko Errepideen II. Lurralde Planean jasotzen direnak, A-8tik kanpoko porturako mendealdeko sarbidearen konexioa egiteko dira. Lotunearen bide-zatia, bestalde, LPPan jasoko da, lurralde-ereduaren iradokizun gisa, eta Bilboko Portuak berak garatu beharko du. Bide zati horren konponbideak ezin du bakartuta utzi Zierbenako Valle auzoa udalerriko gainerako auzoetatik, eta ezin du eten Serantesko eta La Arenako parke metropolitarraren arteko jarraitutasuna.
- Akats bat antzeman da gatazka-eremuari Erletxetako inguruan emandako mugaketan, izan ere, ez da erabat islatu Urdaibai-Ganekogorta igarobidearen eta A-8 eta N-634 errepideek osatutako bide-ardatzaren arteko bidegurutze-eremua; gatazka-eremu hori ekialderantz hedatu beharko da eremu funtzionalaren mugaraino. Aitzitik, ez da aldatu behar gatazka-eremuaren mugaketa iradokizunean eskaturiko gunea, izan ere, bide-sarearen tarte hori, hain zuzen ere, igarobide ekologikoaren definizioan kanpoko ertz gisa erabili den erreferentzia da.

Edonola ere, eremu funtzionalean dauden gatazka-eremuak berrikusiko dira.

15. Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gaineko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren 4. artikuluan ezartzen denaren arabera, paisaia interes bereziko eremuak (PIBE) Paisaia Katalogoen edukiaren parte dira.

Paisaia Katalogoa egiterakoan, paisaia interes bereziko eremuak identifikatzeko datuak bildu eta aztertzeke lana egin zen, Dekretuan adierazitako irizpideen arabera betiere, eta, horren emaitza dira 28. planoan adierazitako PIBEak.

partida cabe realizar las siguientes reflexiones:

- Este punto se ha tratado en el apartado 9 de este documento.
- Las previsiones de la Dirección General de Innovación y Gestión Viaria de la DFB que se recogen en el II Plan Territorial de Carreteras de Bizkaia se limitan a la realización de la conexión del Acceso Oeste al Puerto Exterior desde la A-8. El tramo viario de conexión, por su parte, será contemplado en el PTP como sugerencia del modelo territorial, a desarrollar en su caso por el propio Puerto de Bilbao. La resolución de dicho tramo no deberá aislar el barrio de Valle (Zierbena) del resto de los del municipio, ni comprometer la continuidad entre los parques metropolitanos del Serantes y La Arena.
- Se observa un error en la delimitación dada al área de conflicto en la zona de Erletxeta, dado que no se ha reflejado en su totalidad el ámbito de intersección entre el corredor Urdaibai-Ganekogorta y el eje viario conformado por la A-8 y la N-634; dicha área de conflicto deberá extenderse hacia el este hasta el límite del área funcional. No procede, por el contrario, modificar la delimitación del área de conflicto en la zona solicitada en la sugerencia, dado que ese tramo de la red viaria es, precisamente, la referencia que se ha utilizado como borde exterior en la definición del corredor ecológico.

De todas formas, se procederá a revisar las áreas de conflicto existentes en el área funcional.

15. El Decreto 90/2014, de 3 de junio, sobre protección, gestión y ordenación del paisaje en la ordenación del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco establece en su artículo 4 que las áreas de especial interés paisajístico (AEIP) son parte del contenido de los Catálogos de Paisaje.

En la elaboración del Catálogo de Paisaje se realizó la labor de recabar y analizar datos para identificarlas Áreas de Especial Interés Paisajístico, siempre según los criterios indicados en el Decreto, y, fruto de ello, son las AEIP reflejadas en el plano 28.





16. Aurreko atalean adierazi den bezala, Paisaia Katalogoa egiterakoan, paisaia interes bereziko eremuak identifikatzeko datuak bildu eta aztertzeko lana egin zen eta, horren emaitza dira 28. planoan adierazitako PIBEak.

17. Eskaera aztertuko da.

18. Antolamendu-arauen *B.XII eranskinean (Eraginkortasun loteslearen taula)* eraginkortasun loteslea identifikatzen da, zuzena edo zeharkakoa, hirigintzako plangintzarako LPPren berezko araudiari dagokionez.

19. Aipaturiko “FR202 eranskina (Zortasunak eta Kostaldee buruzko Legea)” izatez “Antolamendu-arauen XI eranskina (Kostaldee buruzko Legeak ezarritako zortasunen plano)” dela ulertzen da. Edonola ere, LPPn adierazten diren mugaketak kostaldean esparruan eskuduna den ministerioak (Trantsizio Ekologikorako Ministerioa) adierazitakoak direla egiaztatuko da.

20. LPP osatzen duten dokumentuetako batean egiten diren aldaketak gainerako dokumentuetan ere jasoko dira.

16. Como se ha señalado en el apartado anterior, en la elaboración del Catálogo de Paisaje se realizó la labor de recabar y analizar datos para identificar las Áreas de Especial Interés Paisajístico y, fruto de ello, son las AEIP reflejadas en el plano 28.

17. Se estudiará la petición.

18. El anexo a las normas de ordenación *B.XII. Cuadro de eficacia vinculante* identifica la eficacia vinculante, directa o indirecta, para el planeamiento urbanístico en lo referente a la normativa propia del PTP.

19. Se entiende que el mencionado “anexo FR202. Servidumbres y Ley de Costas” es en realidad el “anexo XI. A las normas de ordenación. Plano de las servidumbres establecidas por la Ley de Costas”. En cualquier caso, se comprobará que los deslindes que se reflejen en el PTP sean los señalados por el Ministerio competente en materia de costas (Ministerio para la Transición Ecológica).

20. Las modificaciones que se hagan en alguno de los documentos que componen el PTP se recogerán también en el resto de los documentos.

LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA LA DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL

